

EBAZPENA, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko gerentearena, 2019ko, 2020ko, 2021eko eta 2022ko lan-eskaintza publikoei dagozkien barne promozioeko sarbide-modalitateko prozedura arruntaren bidez funtzionario gisa sartzeko zuzenduko duten epaimahaien kideak izendatzeko dena.

Errektorearen 2022ko urriaren 20koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako funtzionario eta lan kontratuko langileentzako 2019ko, 2020ko, 2021eko eta 2022ko enplegu publikoaren eskaintzei dagozkien oinarri orokorrak bai eta funtzionarioen barne-sustapenekoak ere argitaratzea agindu zen.

2022ko azaroaren 7an argitaratu ziren UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langileen A, B, C eta D taldeetarako barne-sustapenaren bidez sartzeko hautaketa-prozedura arautzeko oinarri espezifikoak.

Zazpigarren oinarri orokorrean zehaztutakoari jarraituz, UPV/EHUko gerenteak emandako erabakiaren bidez izendatuko dira hautaprobetako epaimahaietako kideak.

Arestian adierazitakoagatik eta errektorearen 2021eko urtarrilaren 28ko erabakiaren bidez (2021eko otsailaren 12ko EHAA) pertsonalaren alorrean eskuordetu zaizkidan ahalmenez baliatuz,

ERABAKI DUT:

Lehenengoa.-UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langileen A, B, C eta D taldeetan barne-sustapenaren bidez sartzeko deialdi espezifikoetan prozesuko hautaketa-probak zuzenduko dituzten epaimahaiko kide titularrak eta ordezkoen izendapena egitea.

	Titularra	Ordezkoa
Presidentea	Ana Belén San Martín Azofra	M ^a Jesús Artetxe Azurmendi
Mahaikideak	Marian Piñeiro Fernández Aitor Barrenetxea Lázaro M ^a Carmen Aguirre Irisarri	Alcira Macías Redondo Francisco Javier Laveaga Fernández María Belén Anabitarte Gorrochategui
Idazkaria	Oscar Prado Urquijo	Amaya Landera López

Bigarrena.- Erabaki hau deialdi espezifiko bakoitzaren webgunean argitaratzea, horretarako gaitutako UPV/EHUren web-orritik sar daiteke orri horretara (<https://www.ehu.eus/eu/web/azp/ope-barne-promozioa>), deialdi espezifiko bakoitzaren web-orrian, baita UPV/EHUko iragarki-oholetan ere.

Errektoreak 2021eko urtarrilaren 28ko erabaki bidez eskumenak erabiliz (2021eko otsailaren 12ko EHAA)